

## SARRERA.

P Lerroaren Auzolandegiaren (2017) proiektua bitartean, eta egungo, “P Lerroa”: Auritzeko Pirinioetako Bunkerren bidea” (2018) proiektuan baliabide gida bat egiteko aukera aztertu zen. Aurkitutako aztarna ezberdinen potentzial handiak eta balio didaktikoak lan honetarako oinarri izanen dira. Ia ezezaguna den ondare baten berreskurapena, Espainiako historian egindako eraikuntza militar handienaren kontakizunarekin batuz, egin eta prestatu zen material hau, maila bakoitzera egokituta erabilia izateko, lehen zein bigarren hezkuntzan.

Honekin, Nafarroako Foru Komunitateko historia hurbila balioan jartzen dugu eta honen gainean hezten dugu, baita espazioan zein denboran izan zituen ondorioak ere. Horrela, Lehen Hezkuntzako Oinarrizko Kurrikuluma kontuan hartuta, otsailaren 28ko 126/2014 Errege Dekretuak jasotzen duena (BOE, 52 zenbakia, 2014ko martxoaren 1ean), zeinek honakoa jasotzen duen: *“gaitasunetan oinarritutako irakaskuntza bere zeharkakotasunean, dinamismoan eta izaera integralean ezaugarritzen da”*. Programatutako jardueren bidez bilatzen da, helburu honetara heltzea. Era berean, honakoak kontuan hartuta, 24/2015 Foru Dekretua (DBH) eta apirilaren 22ko 25/2015 Foru Dekretua (Batxilergoa), Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 127an argitaratuak (2015eko uztailaren 2an) non Hezkuntza Lege Berria, LOMCE, promulgatzen zen; markatutako helburuetara hurbildu eta hauekin konpromisoa hartuko genuke: *“DBHn, Geografia eta Historia irakasgaiaren helburua da ikasleek Lehen Hezkuntzan eskuratutako ezagupenetan sakontzea, erraztasunak ematea gertaera, prozesu eta fenomeno sozialak ulertzeko testuinguruaren barnean, aztertzea aldaketa historikoen sorburu diren prozesuak eta segitzea behar diren gaitasunak eskuratzen ulertzeko bizi diren munduaren errealitatea, iraganeko eta oraingo esperientzia kolektiboak, etorkizunerako norabidea eta gizarte bizia garatzen den espazioa.”* (BON 127, p. 25).

## **HELBURUAK**

Haur eta gazte publikoari Nafarroako historia hurbilaren berri ematea, egiturak dauden inguru natural eta geografikoaren ezagutza, defentsa lerroaren eraikuntza bitartean zegoen testuinguru historikoa eskaintzea. Hori guztia, Auritzetik eta Ibañetatik hau bisitatzeko dauden ibilbideekin eta web orriarekin indartuz.

Era berean, ikasleek haien inguru hurbilena, kronologikoa zein geografikoa, tokiko ondarea ezagutu dezaten saiatuko gara. Dokumentazio iturri ezberdinak, ahozkoak zein arkeologikoak, aztertzeke gai izanen direlarik.

Gorago aipatu den moduan, gaia espazio ireki batean lantzeko aukera, ikasgelan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zein Batxilergoan indargarriekin, ondareko- interes eta turistiko handia duen espazio batean kokatzen gaitu. Epe motzean eta ertainean helburua seguruenik honakoa delarik: mugako herri gehienak foru administrazioarekin batera, ibilbide gehiagoren ikerketa eta egokitzea sustatzea, ikerketa gehiago eta hau guztia balioan jartzea.

## **EDUKIAK**

Gida honen edukiak orokorrak dira eta hezkuntza etapa ezberdinetara egokitzea zentroek beraiek eta irakasleek aldatuko eta baloratuko dituzte. Beti izanen da Auritzeko Udalaren RAK atarian dagoen web orrian (<http://www.rakpirineos.com/rutas-bunkeres-de-burguete/>) eskaintzen duen etengabeko errefortzua, ibilbideak eta azalpen plano ezberdinak biltzen dituen eta Auritzeko herri-gunean dagoen bisitarien zentroa. Edukiak ikasgai ezberdinetan edo batera erabili ahal izatea bilatzen da, interdisziplina eta batez ere, tresna ezberdinen erabilera: SIG edo Informazio Sistema Geografikoak (SITNA, IDENA), iturri historikoak (garaiko dokumentuak eta mapak, ahozko testigantzak eta testuak), liburuak (literatura eta historia), landa eremuan orientazioa, eta abar.

Erabilitako mapak, dokumentuak, topografia eta erabilitako bestelako iturri historikoek garaiko sinboloak mantentzen dituzte, hauen garapena eta erabilerak ezagutzeko tresna moduan.

Mugako zonalde eta begiratoki ezin hobe honetan inguruan garatu diren beste jarduerak

batzuekin bateragarri egin daitezke. Haien artean, interesgarriena Lindusen dagoen hegaztien begiratokia, [Lindus 2](#) programan kokatua, EGEFen programa baten barruan (Eskualde Garapeneko

## AZALPENA

***Oroimen tokia. Errekuperazio historikoaren espazioa. Ibilbide arkeologikoa. Bunkerren Bideak 1938 eta 1958 urteen artean eraiki ziren gotorlekuen barna hiru ibilbidek osatzen dute, diktadura frankistan defentsa izaerarekin eginak.***

1937 data goiztiarretik, Gerra Zibilean sartuta, mugako igarobide hau gotortzeko txostenak eta ikerketak bata bestearen atzetik etorri ziren (Mendebaldeko Pirinioen defentsan kokatua).

1939. urtean hasi zen errepideen eta lehenengo defentsa egituren irekitzea (lubakiak, tiratzaileen putzuak, eta ametrailatzaileen habiak), ingeniariaren kidegoko soldaduek eginak, hala ere, jakina da, gutxienez hiru hilabetez Langileen Batailoiak izan zirela, zonaldean lan egitera behartuak izan ziren errepublikar alderdiko presoek eta errepresaliatuek osatuta. .

40. hamarkadatik aurrera lehenengo bulkada eman zitzaion eta 1944-1948 urte artean dauden gotorlekuetako asko eraiki ziren. Hurrengo hamarkadan lanek ez zuten gainbehera egin eta hasitako lanak bukatzen joan ziren.

Azkenik, 60. hamarkadatik mantentze eta berrikuspen lanak egin ziren, 80. hamarkadako erdialdean eta Espainia NATO n sartzearekin batera, behin betiko utzi ziren arte.

## JARDUERAK

### 1.LANDARETZA/FAUNA

Unitate honetan, bunkerrak dauden tokietan lurren okupazioarekin denbora lerro bat ezartzen saiatuko gara. Horrela, adibidez, egun aztarnak aurkituko ditugun bi edo hiru puntu finkatuko ditugu eta galdetuko dugu bunkerrak eraiki zirenean eta denboran zehar inguruetan zer zegoen pentsatzen duten galdetuko dugu. Honetarako laguntza handikoa izanen da SITNA, airetiko ikuspegi batetik lurraren okupazioa ezartzeko.





Búnker n.º10 del Centro de Resistencia 211 (Guirizu)



Búnker n.º 3 del Centro de Resistencia 209 (Tres Hayas)

Landaretzari dagokienez, kontuan izan dezakegu bunkerren kokalekua eta zertarakoa dela bere ikuskaria eta tiro potentzia zela, hau zonaldea garbi egotearen menpe zegoelarik.

Denborak aurrera egiteak, birpopulatzeak, bortuak uztea eta beste gorabehera batzuek, inguru benetako oihanetan bihurtu du hainbat landare espezieen garapenerako.



SITNA bidezko airetiko argazkiak 1956-57 eta 2017 urtetakoak (<http://sitna.navarra.es/navegar/>), non baso zonaldea garapena eta lurraren eboluzioa antzematen den

Búnker nº15 del Centro de Resistencia 209 (Tres Hayas)



Denboraren igarotzeak eta egituren uzteak zenbait espezieen egiturak okupatzea eta erabiltzea nola eragiten duen ere ikusiko dugu, haien ugaltze egoera baldintza ezin hobeen antza baitute.





## 2. MATEMATIKAK

Bunker bat eraikitzeko beharrezkoak diren materialen datuak emanda, ariketa bat egin beharko litzateke Erresistentzia Zentro bat eraikitzeko zenbat material beharko liratekeen jakiteko (kontuan izanik ordurako azalduta izanen dela egitura militar jakin baten kopurua dela), adibide bezala jarrita zonaldean dagoenetako bat (adibidez.: EZ 209 Tres Hayas, EZ 210 Ibañeta edo EZ 211 Guirizu).

PRESUPUESTO		IMPORTE		IMPORTE	
ANEXO	DESCRIPCIÓN DE LOS MATERIALES	UNIDAD	CANTIDAD	PRECIO	TOTAL
1.-	1.600,46 m <sup>3</sup> de conservación en roca dura y viento al norte (precio en 1)	m <sup>3</sup>	28 90	46.342 29	
2.-	1.245,904 m <sup>3</sup> de hormigón para murar (precio en 3)	m <sup>3</sup>	495 27	240.960 45	
3.-	405,00 m <sup>3</sup> de hormigón en masa	m <sup>3</sup>	90 00	21.060 00	
4.-	54.343,60 kg de acero en rebordes colocados en obra	kg	1 62	61.875 60	
Importe total del presupuesto de un m. <sup>2</sup>				350.799 40	
42 iguales				14.733.574 80	
Suma				17.193.374 20	
2 % de Imprevistos y reducidos				343.866 81	
Suma				17.537.241 01	
87 hectáreas tipo Escudo á 17.000 pts.				1.479.600 00	
Importe Total				19.016.841 01	
Importe este Presupuesto la cantidad de DÍOS Y BARRIOS ADELANTE CARGOS DEL CIENTO CINCUENTA Y CINCO PUNTA CUENTA Y DOS CENTAVOS.					

IMPORTE		IMPORTE	
PREVISTO	TOTAL	PREVISTO	TOTAL
57 53	90.387 47		
232 77	318.927 25		
82 00	35.010 00		
0 90	164.921 56		
Importe total del presupuesto G.W.A.C.B.			604.906 30
42 iguales			25.409.467 84
Suma			26.014.434 34
87 hectáreas á ... 17.000,00 pts			1.479.600 00
Suma Total			27.494.034 34
Importe este Presupuesto los Signales CINCUENTA Y CINCO PUNTA CUENTA Y DOS CENTAVOS Y BARRIOS ADELANTE CARGOS DEL CIENTO CINCUENTA Y CINCO PUNTA CUENTA Y DOS CENTAVOS.			
Burgos 15 de Febrero de 1.945 El General de Ingenieros			

AGMAV, C 3200,3

Egin zitekeen beste jarduera bat, bunkerrekin lotua, hauen arteko distantzia neurtzea litzateke mapan zenbait puntu emanaz. Ariketa [SITNA](http://sitna.navarra.es/navegar/)ren (<http://sitna.navarra.es/navegar/>) erabilerarekin osatu liteke.

Tresna honek georeferentziario sistema ezberdinak ezagutzeko aukera ematen du, koordinada geografikoak edo UTM koordinada sistema izan; planetaren ezagutzaren eboluzioan, gizadiaren garapen matematikoaren eta abarretan suposatzen duen atze oihalarekin.




SITNAn neurtze tresna (<http://sitna.navarra.es/navegar/>)

### 3. GIZA GEOGRAFIA

Bunker kopuru horren handia horren zonalde mugatuan eraikitzeak tokiko fisionomian aldaketa ugari ekarri zituen, batez ere, egiturak eraikitzen ziren puntu ezberdinetara egindako hainbat sarbideen eraikuntzagatik. Hori guztia, bere helburua inoiz beharrezkoa izan ez zen eraikuntza militarra izanagatik gaizkitua. SIGen tresnen bidez, obren tamaina eta lur eremuan izandako eragina neurtu ahalko dira eta nola egitura horietako asko desagertu diren edo bazterrera utziak izan diren (etxola handiak, pistak, lubakiak).

SITNA eta argazkien erabilera inpaktua ebaluatzeko.







Ibañetako eremuaren eboluzioa errepideen irekierarekin, lubakiekin eta etxola handiekin eta bere erorkin progresiboa

#### 4. GEOGRAFIA ETA HISTORIA

Bideetara irteera batean, horietako baten behin bidexka edo bidean kokatuak, garaiko mapa bat hartu (bunkerrak markatuak dituen) eta egituretako batzuen bilaketa egitea. Honekin, garaiko dokumentuetara hurbiltzea lortzen dugun heinean, inguru naturalera hurbiltzez eta endian orientazioa sustatze dugu. Modu honetan, hainbat gauza ikasiko dituzte: mapa batean maila-lerroak “irakurtzen”, iparorrazaren edo geolokalizazio SIGen erabilera, plano-mapa batean ohiko seinalizazioak ezagutzuz: erreka-zuloa, mugak, bideak, ibaiak eta abar.



AGMAV M.2098,9,7 (209 Erresistentzia Zentroa, Tres Hayas)



Nafarroako plano topografikoa - Auritzeko zonaldea (1970: ezkutua San Fernandoren ordenako gurutzearekin ateratzearen arrazoia)

## 5. GEOGRAFIA ETA HISTORIA

Garai hori irudikatzeko jardura gogo-pizgarri eta deskribatzaileenetako bat, hainbat lan egiteko iturri historikoak erabiltzea da. Kasu honetan, hainbat iturri ditugu, ahozkoetatik hasita: adinekoei entzutea, elkarrizketa motaren bat egitea edo momentuko protagonistei egindako grabaketak edo hauen zati batzuk ikustea, gertatutakoaren oroitzapen biziak dituzten orduan gazteak ziren horiei egindakoak (hau guztia erkatutakoa eta iturri mota honen baliozkotasuna edo fidagarritasuna azalduta); garaiko dokumentuetara: udalen arteko gutunak, xedapen militarrik, errazionamendu kartak. Material hauek ikasgelan lan egiteko eta etxean, familia giroan, ariketa edo jardueraren bat egiteko erabiliko lirateke (ikasgelan ikasle migratzaileekin eman daitezkeen beste errealitate batzuekin estrapolatu daiteke). Horretarako dokumental ugari dago (Orreagako pasabidean P Lerroaren Aztarnak proiektuaren barruan egindakoak).

[Langileen Batailoien Langile gatibuen argazkiak.](#)

[Desafectos<sup>1</sup>](#) (DVD)

1 El documental completo se podrá visionar en el centro de acogida de visitantes y a través de la web <http://www.rakpirineos.com/rutas-bunkeres-de-burguete>. A su vez, las entrevistas completas quedan en el fondo documental de la Memoria Histórica de Navarra <http://memoria-oroimena.unavarra.es/>

## 6. GORPUTZ HEZIKETA (+ HIZKUNTZA ETA ETA GIZARTE)

Hiru Pagoen Ibilbidetik mendi-ibilia (seguruenik egokiena orografiarengatik eta irteera Auritzetik bertatik duelako) ibilbide atseginarekin eta ingurune ikusgarrian. Ibilbidearen leku zehatzetan geldialdiak gehitu ahalko zaizkio poesiak edo testu txikiak irakurtzeko edo antzerki emanaldi txikia egiteko (hau beste departamentu batzuekin lan daiteke: hizkuntzak eta Hizkuntza eta Literatura).

Ibilbidearen track-a jarraian dagoen estekan aurkitu daiteke:

<http://www.rakpirineos.com/rutas-bunkeres-de-burguete/>

## 7. HIZKUNTZA ETA LITERATURA

Hemen, ahozko iturriekin bezala, alde batetik bizitza historiak sar zitezkeen (elkarrizketak, mintzaldiak) eta bestetik, zonaldeko xehetasunak eta egoerak kontuan hartzen dituzten testuak. Biografia zabala dago hainbat hizkuntzatan, ariketa eta lanetarako erabiliko ahalko dena. Hemen erabil daitezkeen batzuen zirriborroa uzten dizuegu:

- *Au peril de leur vie*, J-B. Etcharren-Lohigorri
- *Centauros del Pirineo*, Félix Urabayen
- *Esclavos del franquismo*, Edurne Beaumont y Fernando Mendiola
- *Las montañas de la libertad*, Josep Calvet
- *La frontera salvaje*, Fernando Hernández Sánchez
- *El otro árbol de Guernica*, Luis de Castresana

30 eta 40 hamarkadetako dokumentazioaren azterketa egitea, hizkuntzaren garapenaren ezaugarriak aztertzeke aukera eman dezake (adeitasun formulak, formula epistolarrak, eta abar.), distantzian komunikazio sistema nagusi bezala gutunaren erabilera, hizkuntzaren atze oihal politikoa, eta abar.

## 8. EKONOMIA

Ariketa interesgarrienetako bat eta esanguratsuenetako bat obren kalkulua egitea litzateke. Gutxienez Erresistentzia Zentroetako baten balizko gastuak ditugu. Materialen banakatzea eta eraikitze beharrezko langileen kopurua kalkulatu genezake. eta gero garaiko oinarrizko elikagaien prezioekin konparatiboa egitea. Honekin guztiarekin, gabezia gorriaren garaian defentsa lerroaren eraikuntzan erabili zen baliabide eskergaren ideia ematea lortuko genuke.

The image shows three pages of a historical budget document. The left page is the title page, the middle page is the main budget table, and the right page is a summary table.

NÚMERO DE LOS ARTÍCULOS	CANTIDAD DE LAS MATERIAS	DESCRIPCIÓN	IMPORTE		
			Por Mts.	Por Ptas.	Por Dts.
1.-	1.610,46 m3.	de excavación en zona dura a cinco metros (precio nº 1)	28 90	46.562 95	
2.-		<b>ARMADO</b>			
	1.245,904 m3	de hormigón para armar (precio nº 3)	107 37	240.950 45	
3.-	405,000 m3.	de hormigón en masa	52 00	21.060 00	
4.-	56,345 kg	de acero en rebordes colocados en obra	1 62	91.279 66	
		Importe total del presupuesto de un C.M.		399.799 40	
	42 iguales			16.791.578 80	
		Suma		17.191.378 20	
		2 % de Imprevistos y rebases		343.826 62	
		Suma		17.535.204 82	
		87 barracaes tipo Segunda a 17.000 pts.		1.479.000 00	
		Importe total		19.014.204 82	

AGMAV C 3200, 3

Ibilbideetako bat puntu hau alderdi ezberdinetan azaltzen eta garatzen du. Garaiko proiektzioa, ikuspuntu historikoa eta inflazioa egiteko Jordi Maluquer de Motesen lana erabili daiteke: [La Inflación en España. Un índice de precios de consumo, 1830-2012](#), BE (2013)



## **ESKEMAK ETA MAPA KONTZEPTUALAK**

Tresna didaktiko teknologiko berriek ariketa ugari eta hezkuntzaren hobekuntzan ahaleginak eskuragarriak eta publikoak izatea ekarri dute. Horrela, penintsulako geografian barnako ikastetxe ezberdinetan egindako lanek SIG sarbidea izatea ahalbidetzen digute kalitate ezin hobeko materialetara. Aukeraketa txiki bat::

<http://rosalarahistoria.blogspot.com/2017/04/bloque-xi-el-regimen-franquista.html>

<http://historialicinio2.blogspot.com/2014/09/tema-12-la-creacion-del-estado.html>

<http://leccionesdehistoria.com/4ESO/UD/LADICTADURAFRANQUISTA.pdf>

<http://espahisto.blogspot.com/2011/09/tema-151-la-creacion-del-estado.html>